



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2018ko uztaila · 341. alea

TOKIKOM

A large group of people, including men and women, are sitting on a set of stone steps outdoors. Many of them are wearing red berets, a traditional Basque hat. Some are holding musical instruments like guitars, saxophones, and trumpets. The scene is festive and appears to be a social gathering or a performance. The steps are made of grey stone and are bordered by a metal railing on the right side. The background shows a paved area and some buildings.

# Gertu plazarako



## AURKIBIDEA

**4** Jaiak Euskaraldia

**6** Begira 1950eko programa

**8** Jaiak Kanoikada, herri bazkariak, barrakak, zezenak...

**14** Argazki bidez San Andresko jaiak

**16** Erreportajea Jaialdia

**22** Kirola Errugbia, pelota eta futbol 7 txapelketa

**24** Kultura Golden Apple Quartet, Tio Teronen Semeak, Fan&Go eta Soraluze Open Air Gune Musik

**28** Sakonean Galtxagorriek 15 urte

**30** Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

## Iritzia

**3** Neuretik Jone Oregi *Ellos también lo harán*

**16** Gutunak Iñigo Uribetxeberria eta Hautsak harrotzen

**16** Hausnarketa Kanoikada

**17** Zir(r)ika Kanoikada

**17** Puntua Ana Losada *Despedida*



**Pil-pilean**  
herri komunikabidea

Aldizkaria ASKOREN ARTEAN egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak:  
aldizkaria@pilpilean.eus • 605 706 086

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkarte  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze  
Telefonia 943 75 13 04

### Erredakzioa

Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno 605 706 086  
egoitz@pilpilean.eus

### Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus  
**Diseinua** Goiena,  
Oier Larreategi (moldaketak)  
**Azala** Fernan Oregi

### Maketazioa

Oier Larreategi  
**Zuzentzailea** Leire Ginea  
**Inprimategia** Gertu Koop.  
**Banaketa**  
Pil-pilean Ekoizpena

### Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZeko**  
**UDALA**

# Ellos también hablan



Jone  
Oregi

Youtube plataforman milioika bideo aurki ditzazkegu, edukirik gabeko asko, baina badira balio handia dutenak ere. 500.000 ikustalditik gora dauzka *Tengo dos mamás* bideoak, Paula eta Marc, 8 urtekoak, protagonista dituela. Lidia eta Montseren seme-alabak dira eta Bartzelonan bizi dira.

Lidiak eta Montsek *Madre no hay más que 2* eta *Pol quiere* más liburuak argitaratzeaz gain, *Ellos también hablan* proiektua jarri zuten martxan. Proiektu hori dokumental moduan aurkeztu nahi dute eta helburua garbia du: familia minoritarioak ikusgarri egitea eta desberdinak izan ez arren, horrela sentitzen diren umeei laguntzea, beldurrik gabe adieraztea ahalbidetuz.

Baina, hara-non, guztia lotuta zutenean, adingabeen fiskaltzak ez zien proiektua baimendu, “umeez ez omen dute gauza horietaz hitz egin behar” esanda. Harridurak eta

**“Zein garrantzitsua den ezezaguna ezagun egitea, beldurrak baztertu eta familia mota guztiak errespetuz tratatzeko.”**

haserreak alde batera utzita, eta oraingoan baliabiderik gabe, grabaketa aurrera eramatea erabaki dute eta dena amaitzean, berriro ere adingabeen fiskaltzara zuzentzea.

Zer entzutearen beldur izango ote da fiskaltza?

Dokumentala Euskal Herria eta Catalunya artean grabatuko da eta 2 familia homoparentalen seme-alabak izango ditu, batez ere, protagonista.

Alde batetik Marc eta Paula (8 urte) Lidia eta Montseren seme alabak eta, beste alde batetik, Sergio.

Sergio 17 urte dituen Gasteiztarra da eta Jose eta Luisen seme adoptiboa da, 8 urterekin bullyingaren biktima izan zena 2 aita izatearen ondorioz, eta bere esperientziaz eta familiaren garrantziaz hitz egingo du.

Segioren kasua, zoritxarrez, ez da kasu bakarra izango, eta, zer esanik ez, bullyingeraino iritsi gabe, baina, euren familia medio, egunerokotasunean, errespetu falta itzelak bizi dituzten umeen kasuak. Sexu bereko pertsonen ezkontzak legeztatu zirela 13 urte luze pasa diren arren, oraindik ere, ez da aniztasun familiar hori inondik inora ere ikusgai egiten. Eta zein garrantzitsua den ezezaguna ezagun egitea, beldurrak baztertu eta familia mota guztiak errespetuz tratatzeko. Guztion esku dago, txikienetik hasi eta nagusieneraino, aniztasun familiarra ezagutaraztea, eskolan, etxean, kalean, telebistan... Euskal Herri libreago eta zoriontsuago baten alde!

# Euskaraldiaren HAMAIAKAKOA

*Euskaraldia: 11 egun euskaraz ekimenaren Soralezeko hamaikakoak botako du aurtengo jaiei hasiera emango dien kanoikada. Pregoian, plazentziatarrak gonbidatuko dituzte azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den ariketa sozialean parte hartzera. Enbaxadoreen zeregina izango da han eta hemen ekimenaren berri ematea.*

Izen-ematea urrian zabalduko da eta herritarrek izena eman ahalko dute *belarriprest* edo *ahobizi* rolak hautatuz.



**KRIS**  
Jacas  
Mateu  
—Ahobizi

Euskaraldiak aukera emango dit beste guztiakin maila berean egoteko, inporta gabe kanpoko edo bertakoa naizen. Erabaki dut ahobizi izatea nahi dudalako gaur eguneko egoeratik aurrerago joatea.



**OIER**  
Oregi  
Unamuno  
—Ahobizi

Ahalegintzen naiz lehenengo berba euskaraz egiten eta erdarara aldatzen dut ulertzen ez didatenean. Bada ulertzen didalako nik euskaraz egin eta erdaraz erantzuten didanik ere. Euskaraldiak lagundu dezake jarrera hori normalizatzen.



**GARAZI**  
Catalan  
Arenaza  
—Ahobizi

Hemezortzi urte ditut eta orain hasi naiz konturatzen zer gertatzen den hizkuntzekin. Badira nirekin ikasi dutenak eta euskaraz jakin arren egiten ez dutenak. Horiekin nahi dut eustea euskarari, beti nik aldatu beharrean.



**IXA**  
Rodriguez  
Saez  
—Belarriprest

Lagunartean erdararako joera handia dugu baina nik nahi dut aldatzea. Nire helburua da euskaraz egiten dutenekin euskaraz egitea. Nik nahi dut euskaraz gehiago egitea eta horretan ahaleginduko naiz.



**ARACELI**  
Maiztegi  
Abarrategi  
—Ahobizi

Guk etxean beti euskaraz egiten genuen, aita oso gogorra zen horretan eta nik jarraitzen diot bide horri. Nik denean egiten dut euskaraz, baldin badaki. Kanpotik etorritakoak ikasten dabiltza, eta guk laga?



**SEBAS**  
Hernandez  
Garate

—Belarriprest

Yo quiero que mi aportación como Belarriprest sirva para que la gente se atreva a hablar en euskera y no sienta un reparo a la hora de hablarlo, aunque no lo controle perfectamente. Barrerak apurtu behar dira.



**INMA**  
Matute  
Zabala

—Belarriprest

Yo no se hablarlo y para hablarlo mal, prefiero no hablarlo. Pero lo entiendo y no me importa que me hablen en euskera. Así voy aprendiéndolo, para algún día poder soltarme. Para mí es una cosa normal, y lo que no entiendo, lo pregunto.



**MYRIAM**  
Goenaga  
Juez

—Ahobizi

Niretzat hizkuntza oso gauza garrantzitsua da. Ohiturak aldatzea ez da erraza. Badakit aldaketak gauza txikiekin hasten direla eta nik nahi dut horietaz kontziente izatea, aldatu ahal izateko.



**ASUN**  
Aranda  
Nuñez

—Belarriprest


Jente askok, batez ere, nagusiek, ez dakite nik euskaraz egiten dudarik eta erdaraz egiten didate. Baina nik txiki-txikitat dakit euskaraz, eta askorekin egiten dut. Nahi dut gehiago egitea, ze asko gustatzen zait.



**DAVID**  
Rascon  
del Caño

—Belarriprest

Nik nahi dut jendeak niri euskaraz egitea beti, aunque yo responda en erdera. Nik egingo dut euskeraz poliki-poliki, beste modu batera, baina ulertzen dut dena. Da lotsa, la vergüenza de meter la pata.



**ITBISSAN**  
El Kanouni  
Ennaoui

—Belarriprest

Ulertzen dut dena baina kostatzen zait hitz egitea. Cuando llegué el euskera era difícil para mí y no me gustaba, pero ahora sí. Egiten badidate, ni saiatuko naiz. Batzuetan alguna palabra no me saldrá, pero voy a encontrarla.

## Zezena dator arkupetik...

ARGAZKIA: ANTONIO ARRUABARRENA  
TESTUA: JUAN CARLOS ASTIAZARAN


Herriko jaietan falta ezin dena, inola ere, sokamuturra da. Eta ez da atzo goizeko kontua, ez: orain dela 250 urte, XVIII. mendearen bukaeran, Santiago eta Santa Ana egunetan zezenketak izaten ziren Soraluzen. Orduan ere denak ez ziren alde, ez: garaiko 'diputado del común' edo herritar arruntaren zaintzailea zen Pedro Pablo Yrive Larrañaga jaunak bertan behera lagatzeko eskatu zuen eta.

Kantu herrikoietan ere sartu da sokamuturra: 'Zezena dator arkupetik...' kantuan sasoi bateko sokamuturrak irudikatzen dira, zezenak Santa Anako arkupetik askatzen zirenekoak eta Plaza Zaharreko bidea korritzen zutenekoak (Santa Ana, Kalegoen, Plaza Barria, Kalebarren eta Plaza Zaharra).

Baina zezenketak askoz zaharragoak ziren Soraluzen. Orain dela 800 urte baino gehiago, Nafarroako erregea etorri zenean Irureko Don Celinos lehengusua ikustera, zezenekin ospatu zuten bisita. Soraluzekoa Kristo ostean zezenketei buruz egindako lehen aipamena da Europa osoan.

Egileari buruz. Antonio Arruabarrena Kalebarrenen jaio eta bizi izan zen. Gaztea zela gaixotu eta erretiratu egin behar izan zuen. Marrazteko oso esku ona zeukan eta karikaturak egiteko abilezia ere bai. Gerra osteko urteetan, herriko 'grafista' bihurtu zen: jaietako programak, tabernetako iragarkiak, lagunen eta ezagunen karikaturak... denetik egin zuen. Informazio gehiago: [www.sorapedia.eus](http://www.sorapedia.eus)





# Kanoikadarekin hasiko dira jaiak historiari keinua eginez



Danborradako kanoia erabiliko da jaien hasierako kanoikada emateko.

Txupinazoak aldaketa nabarmena izango du aurten, herriko jaien hasiera iragartzeko txupina edo etxafuegoa erabili ordez, kanoikada jaurtiko dutelako. Bi arrazoirengatik egingo du aldaketa Soraluzeko Udal Gobernuak, Iker Aldazabal alkateak esan duenez: “Garrantzitsuena da herritarren segurtasuna, aurreko urteko ezbeharrak kontuan hartuta. Kontu arrisksua da, eta ekidin egin behar dugu, berriro ere halako gertaerarik izan ez dadin”.

## Soraluzeko historia

Txupinazoan kanoikada jaurtitzeko bigarren arrazoiak, berriz, herriko historiarekin lotura zuzena dauka: “Soraluzeko historiarekin harreman zuzena dute armagintzak eta kanoiek; eta hori erreferentzia modura izanda, Danborradako kanoia bitartez emango zaie jaiari hasiera. Eta aurten, gainera, soraluzetarrak ere modan gaudela irakurri dut komunikabideetan. Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) Independentzia-egunarekin du lotura. Uztailearen 4an da egun hori. Eta, gaur egun, Donostiako Untzi Museoan dago horren gaineko historia jasota. Bertan dauden

dokumentuetan ageri da zela euskaldunek lagundu zuten AEBtako Independentzia-gerran, frantsesen bitartez armak eramaten. Eta nongoak ziren arma haiek? Bada, Soraluzekoak. Gerra hari esker, AEBtako koloniek independentzia lortu zuten Britainia Handiarekiko. Kasu hartan, gerran sartuta zeuden bigarren superpotentziakoek, frantsesek, harremanak zituzten hemengo euskaldunekin eta lagundu zieten Soraluzen fabrikatutako armak kolonoei eramaten”, halaxe esplikatu du alkateak. Hark gaineratu duenez, Untzi Museoan dute Soraluzeko hiribilduaren gaineko dokumentua ere, alkatetzan dago haren kopia bat. “Hemen (planora seinatzen) azaltzen da armen biltegia, hemen daude arma guztiak, eta eraikin hau da Erregetxea da. Eta idazkian kontatzen da zela Gipuzkoan armagintzaren jatorria dagoen, besteak beste, Soraluzen, eta zela Soraluzeko fabrikek lagundu zuten AEBtakoek Britainia Handiarekiko independentzia lortzen, armak eginez”, horixe gaineratu du Aldazabalek.

## ‘Sexubizi gunea’

“Sexualitate eta harreman osasuntsuak” bultzatzea helburua duen Jai-Gune Prebentzio Programa izango da Soraluzeko jaietan: Sexubizi Gunea. Gune mugikorra da berau, “informazioa, aholkularitza eta genero erasoen aurkako babes gunea” eskaintzen duena. Plaza Berria izango du, hain justu, kokaleku, uztailearen 28an, 23:00etatik 02:00ak bitartean. Veronica Hurtado sexologoa eta osasun psikologoa bertan izango da arreta eskaintzeko eta horrez gainera, gai anitzetako kontsulta liburuak, preserbatiboak, liburuxkak... eta bestelako materiala ere izango da gune hartan. Halaber, norbaitek jarrera matxistaren edo homofoboren bat pairatuko balu, Plaza Berriko gunera joan daiteke.

## Bueltan da Mus Txapelketa

Bi urteko etenaren ondoren, aurten, 17:00etan Kontzejupea mus jokalarien topaleku bihurtuko da. Mikel Leundak hauxe azaldu du: “Azken bi urteotan ez dugu antolatatu, antolatzailea, Mikel Santiago joan egin zelako. Baina urtero eskatzen ziguten eta aurten animatu egin naiz antolatzeraz”.

Mus Txapelketan parte hartu nahi duenak egunean bertan eman behar du izena. Lehiaketa antolatuko dute, noski, momentuan bertan izena ematen duten bikoteen arabera. Ez da ezer ordaindu behar parte hartzeko. Edozelan ere, sariak izan izango dira: 100 euro lehen bikotearendako, 60 euro bigarrenarendako eta 40 euro hirugarrenarendako.



# Paella-jana, fibrodisplasia osifikatzaile progresiboari aurre egiten laguntzeko

150 lagunendako herri-bazkaria antolatu du aurten ere Soraluzeko Udalak, uztailaren 28an, zapatuan, 15:00etan, Kalebarrenean. Paella-jana izango da, eta paella erraldoia Bizimiña elkartekoek prestatuko dute, Plaza Berrian 10:00etan hasita.

Enrike Perezek, Bizimiña elkarteko ordezkariak emandako xehetasunen arabera, 14 kilo arroz ekarriko dituzte, eta hura gozatzeko oilaskoa, muskuiluak, (mejilloiak) otarrainxkak, txibiak, piperrak (gorriak eta berdeak), tipulak, lekak eta ilarrak. Eta menua osatuko dute entsaladarekin, pintxo morunoekin, postrearekin eta kafearekin. Prezioak honakoak dira: helduek 12 euro eta erretiratuek, ikasleek, haurrek eta langabeek 8 euro. Txartelak salgai daude Iratxo Gozo-dendan.

## Ehuna hezur bilakatu

Herri-bazkariak emango duen irabazia Bizimiña elkartearendako izango da. Elkarte horrek gaixotasun arraroen ikerketarako diru-bilketa egitea du helburu. Hain justu, kasu honetan, fibrodisplasia osifikatzaile progresiboa (FOP) izeneko



Herritarrek frontoian iazko paella-janean. FERNAN OREGI

gaixotasunari aurre egiteko ikerketetan laguntzeko bideratuko dute dirua.

Endekapenezko gaixotasuna da hori, degeneratiboa, gorputzeko ehun bigunak hezur bihurtzen dituena. Euskal Herrian gaixotasun hori duen ume bakarra dago, Eibarren. Eta Espainiar estatuan, berriz, halako bost umeren kasuren berri dute Bizimiña elkartekoek. Perezek emandako xehetasunen arabera, AEBetan, Pensilvanian dabilta gaixotasunari aurre egiteko ikerketak egiten, Espainiar estatuan ez dago halakorik.

Perezek zera gaineratu du: “Oraingoz tratamendu experimental bat jarri dute abian. Eta beste bi medikamentu ikertzen dabilta, hasiera fasean”.

## Bingoa

Bestalde, herri bazkariak beste diru bilketa bat ere badu helburu: Soraluzeko gazteen datorren urteko ikas-bidaia finantzatzeko laguntzea. Hori horrela, bazkaria gazteek eurek zerbitzatuko dute, eta bazkalostean bingoa antolatuko dute. Beraz, bingoa irabaziak gazteendako izango dira.

# Zuriz jantzeko deia Santa Ana egunerako

Herritar talde batek zuriz jantzita ateratzeko deialdia zabalduko du Santa Ana egunerako. Iaz ere, dozena erdi bat lagun, zuriz jantzi ziren Santa Ana egunean eta ekimena indartu nahi dute aurten, ekimenera herritar gehiago batuta. Deitzaileei Santa Ana egunerako “janzkera egokia” iruditzen zaie zuria: “Soraluzen lehenagotik ere badago Andramarixetan zuriz jantzeko ohitura eta San Ferminekiko hurbiltasuna ere arrazoi ona da probatzeko”.



Iaz Santa Ana egunean zuriz jantzi ziren herritarretako batzuk.

# Aurten autotxo ke barik



Neska-mutikoak lapiko handian jiraka eta bueltaka. FERNAN OREGI

Gaurtik, barikutik, uztailearen 29ra arte martxan egongo dira barrakak Erregetxean. Azken egun hori izango da, hain justu ere, Umeen Eguna. Egun horretan txartel bakoitza euro bat kostatuko da; bestela, bidaia bakoitzeko 1,80 euro ordaindu beharko da; lau txartelengatik, berriz, 6 euro.

Edozelan ere, aurten albistea da autotxo keak ez datozela: “Jaiak uztailearen 29raino luzatzen direnez, eta abuztuaren 3an, berriz, Getariako jaiak hasten direnez, (urtero doaz Soraluzetik Getariara), diote ez diela ematen nahikoa astirik hemen desmuntatu eta Getarian muntatzeko. Eta nahiago dutela uztailearen 27ko asteburuan ere Getarian ipini, han askoz diru gehiago ateratzen dutelako”, esplikatu du Mikel Leunda Kultura teknikariak.

## Koltxonetak, lapikoak...

Autotxo keak ez etorri arren, urteroko gainerako atrakzioak etorriko dira: koltxonetak, lapiko txikia, txiki-parka, tiro-pitxoia, txurro-egilea, lapiko handia eta autotxo keen lekuan wipe out izeneko puzgarria. Gehienak Bizkaitik datoz, gehienak Barakaldokoak dira-eta, Kultura teknikariak jakinarazi duenez.

Eta beste aldaketa bat ere izango da barraketan: musika kentzeko ordutegia: “Plazako musikarekin

baterra, 02:00etan kendu beharko dute musika, kexaren bat-edo egon da-eta”, dio Leundak.

## Makila Zoro Txapelketa

Barrakak ez ezik, jolasean ibiltzeko bestelako aukerak ere izango dira jaietan. Uztailearen 27an puzgarriak izango dira Plaza Berrian, eta, bertan, txapelketa antolatu dute: Barredora edo Makila Zoro Txapelketa: “Haurrendako eta helduendako da. Badaramatzagu urte batzuk Plaza Berrian hainbat txapelketa egiten: iaz zezen mekanikoarena egin genuen eta egin izan dugu dardo txapelketa, hiruko jaurtiketa txapelketa, penalti txapelketa... eta aurten Makila Zoro Txapelketa egingo dugu”, horixe kontatu du udal teknikariak.

Parte hartzeko izena egunean bertan eta lekuan bertan, eman beharra dago. Lehen Hezkuntzatik aurrerakoek parte har dezakete. Eta sariak izango dira lehen hiru irabazleendako: 60 euro, 40 euro eta 20 euro. Lehian egin beharrekoa, honakoa: Bosnaka edo seinaka puzgarrira sartu, eta Makila-Zoroak bueltaka dabiltzala, azkena geratzen dena pasatuko da hurrengo txandara; hau da, txanda bakoitzean pertsona bat pasatuko da hurrengo txandara. Eta horrela bakarri geratu arte. Izen-ematearen arabera, adinka nahastuta antolatuko dituzte txandak.

## Elkartasun Bazkaria eta beste

Uztailearen 25ean, txupinazoaren ondoren zabalduko dute Plaza Zaharreko txosna esparrua. “Ogitarteko gozoak, terraza, freskagarriak...” eskainiko dituzte, eta 11:00etan zabalduko dute egunero, antolatzaileek, Soraluzeko Elkartasun Batzordeak jakinarazitakoaren arabera. Eguenean, berriz, Elkartasun Bazkaria egingo dute Plaza Zaharrean, honako menuarekin: entsaladilla errusiarra, saiheskia patatekin, piperrak eta ijito-besoa. 15:00etan hasiko da eta ez da alde aurretik izena eman behar. 100 bat lagunendako jana prestatuko dute. Bukatzeko, uztailearen 27an, hileko azken barikuko kartelada egingo dute Sarek deituta, *Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira leloarekin.*

## Eraso matxisten aurkako argazkia

Korner Moreak txupinazoaren aurretik egingo den argazki herrikoira gonbidatu ditu herritarrek, “Soraluzeko jaietan ere ematen diren eraso matxisten aurka adierazteko” helburuarekin. Eguaztenean, uztailearen 25ean, 18:45ean da hitzordua, Plaza Berrian. “Ekintza sinbolikoa baina adierazgarria izango da”, esan dute elkartetik.

# “Kalitatezko pil-pilerako inportanteena da olioaren temperatura”



Angel Aldazabal eta Inazio Zubizarreta iaz, lehen saria jasotzen, alkatearen eskutik. FERNAN OREGI

Angel Aldazabal (Soraluze, 1948) eta Inazio Zubizarreta Txanbua (Soraluze, 1948) dira oraindik orain jaietako bakailao lehiaketako irabazleak, iaz txapelketa eurek irabazi zuten eta. 2002an ere halaxe egin zuten eta, gainera, 3. saria beste birritan eskuratu dute.

“Aurten bigarrena atera behar dugu, hori falta zaigu-eta...” dio barrez Angel Aldazabalek:

**Zenbat urte daramazue aurkezten?**  
Buf! 30 urte bai.

**Sukaldaritzazurekiko halako zaletasuna duzue?**

Elkartean ere guk egiten ditugu kuadrillako bazkariak eta afariak... Eta etxean salta kontua ere guk egiten dugu, bakailaoarendako eta beste kontu batzuek ere bai. **Garrantzitsua da parte hartzea?** Orain arte hor egon gara eta... Eta herrian jakiteko zeintzuk diren bakailaoan, behintzat, onenak (barre).

**Zuek zarete onenak hortaz...**

Momentuz. Urtea ez da amaitu.

**Lau bider lortu duzue sariren bat; zein da zuen sekretua?**

Bakailaoa ona izatea, eta ona ekartzen dute Alkortaren bakailaoa

(Elgoibarkoak dira). Hori inportantea da. Olioa ere eurek ipintzen dute, eta hori ere kalitatezkoa izan behar da. Eta gero, salta ona ateratzeko inportanteena da olioaren temperatura, kalitatezko pil-pila ateratzeko. Guk puntua hartuta diogu: apur bat atzaparra sartu... *eta ta! Oraintxe dago bere puntuan!* Eta bueno, esan beharko dugu orain aldatu egin dugula salta ateratzeko modua. Beste askok ere hala egiten dute: iragazkiarekin. Egin behar dena honakoa da: lehenengo bakailaoa egin, inportantea da hari ere bere denbora ematea (ez dugu esango zenbat, hori sekretua da), gero kendu, eta temperatura hartzen laga, eta gero iragazkiarekin salta atera. Eta gero bakailaoa bertan ipini. Ze guk kazolatik atera egiten dugu bakailaoa, eta haren ura gorde eta gero olioarekin nahastu eta erabili egiten dugu. Ez dauka besterik. **Gainerako lehiakideek zelako maila dute?**

Nahiko ona. Batzuek txapuza batzuk ere ateratzen dituzte, baina orokorrean maila ona dute, eh! Maila nahiko ona dago Soraluzen.

## 600 oparitik gora Kukumixoren tonbolan



Urdaiazpikoak, ardo ona, afariak, Puntu.eus-en saskiak, deskontu-txartelak herriko dendetan erabiltzeko...

Kukumixo Aisialdi-taldekoek seirehun oparitik gora zozkatuko dituzte jaietan jarriko duten tonbolan. Denak dira herriko elkarte, komertzio eta norbanakoek emandakoak. Izan ere, tonbolan aterako duten dirua erabiliko dute, urrian, taldearen hamargarren urteurrena dela eta, antolatuko dituzten ospakizunak finantziazteko.

Tonbola ipiniko dute jaien lehenengo egunean, uztailearen 25ean, arratsaldeko 18:00etan hasi eta boletoak amaitu arte. Kukumixok eskerrak eman nahi dizkie opariak eman dizkieten herriko talde, komertzio eta norbanakoei.

## Deskargatu jaietako egitaraua mugikorrean

Astelehenetik aurrera, jaietako egitaraua formatu berezian deskargatu ahal izango da Plaentxia.eus-en. Helburua da irakurleari egitaraua mugikorretik erraz kontsultatzeko modua eskaintzea.

# 200-300 kiloko zezenak ekarriko dituzte Soralezeko jaietara Mutrikutik



Arno ganadutegiko zezen batzuk Kalbarixuko zelaietan. ARNO GANADUTEGIA

Aittona, Anbroxio, Sorgin, Mutur, Motekobeltza... halakoxe izenak dituzte uztailaren 26an goizez (07:30) zein arratsaldean (19:00) soralezetarren eta bisitarien hankak airean ipiniko dituzten zezenetako batzuek.

250-300 kilo ingurukoak dira animaliok, 5-12 urte bitartekoak, mutrikuarrak, eta Arno ganadutegikoak.

Arno ganadutegiko ugazabetako batek, Andoni Mugertzak, esplikatu duenez, 8-9 zezen ekarriko dituzte, "beste leku batzuetan ibilitakoak. Ordu eta erdi irauten du saioak, eta zezen bakoitzak hamarna minutu egiten ditu plazan. Ze bestela hankak gastatu egiten zaizkie, eta herren gera daitezke".

Zezenei laguntzen, berriz, Andoni Mugertza bera, Jon Osa eta Mikel Ugartetxea etorriko dira, besteak beste, guztiak ere Arno ganadutegikoak edo gertukoak.

## "Plaza berezia"

Lotura estua dute Mutrikuko zezenek Soralezerekin: badira 35 urte pasa Arno ganadutegiko zezenak ekartzen dituztela Soralezera, jaietara, Mugertzak kontatu duenez: "Bi osaba (Agustin Mugertza eta Joxe Mari Arriola) hasi ziren orain 40 urte pasa

ganadutegiarekin; hasi eta lasterrera Plazentziara joaten hasi ziren. Plaza berezia da Plazentziakoa. Batetik ona eta bestetik exigentea. Ze bi plaza daude zezenen ibilbidean, eta bietan ibiltzea komeni da, ikusleengatik. Horregatik apur bat konplikatu da".

Soraluzeko plazetan ibiltzen diren "toreatzaileei" begira, berriz, haiendako gomendio batzuk eskatuta, pare bat azpimarratu ditu Arno ganadutegiko ordezkariak: "Plazara joan daiteke ondo pasatzera, baina pasatu gabe. Trago bat hartuta ondo, baina asko hartu gabe. Eta animaliak ondo tratatuz. Kontuan izan behar da zezena bera bakarra dela, eta berak bere burua defendatu behar duela, beraz denak

beraren kontra batera egin barik ibil daitezela da onena".

## Zezena poligonoraino

Horrenbeste urtean Soralezera etorrita, jakina, badute anekdota bat edo beste, Andoni Mugertzak gogoan duen moduan: "Orain bost bat urte, alguazilen aurrean egurra apurte, eta zubitik erreperida eta handik poligonoraino joan zen zezen bat. Alguazilak autoarekin joanda harrapatu zuten. Baina zezena haserre-edo zebilen eta alguazilen kotxeari ispilua apurte zion trukean. Horrez aparte, ibaira bi zezen, gutxienez, jausi izan dira. Bat, gainera, trabatuta geratu zen, baina ez zen akabatu; gertatu izan zaigu, urte batzuetan zezena ukuilura sartu ezinda ibili eta txakurrekin harrapatu beharra ere...".

Eta agurtzeko zera gaineratu du: "Urte askoan segi dezala Soralezekin dugun harreman onak; zaletasuna ez da galdu behar. Errespetua zor diegu zezenei, 500 urte pasako historian ageri dira-eta".

Uztailaren 26ra arte, bada, hortxe, Arno mendiaren magalean, Mutrikurako bidean, Kalbarixuko zelaietan izango dira Aittona, Anbroxio eta konpainia, Arno ganadutegiak dituen beste 100 bat animaliarekin batera.



Ikko txikixa eta Anbroxio zezenak Arno ganadutegiko ukuiluan. ARNO GANADUTEGIA

Jaixetako  
saltsarik onena,  
Pil-pileanen!

Eta  
Plaentxia.eus-en  
egunero!

Pil-pilean  
herri komunikabidea



# Sanandrestarren estilora


ARGAZKIAK: FERNAN OREGI TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Hamaika ekitaldi eta jende mordoak izan da aurtengo San Andresko jaietan ere. Ohikoak diren jatordu ederrekin batera azoka, kirol probak, erromeriak, bertsolariak... izan dira. Zer ez!

Zapatuan, pilota txapelketan, Unanue eta Rascon 22 eta 17 gailendu zitzaizkien Gallastegi eta Callesi. Domekan, Juan Rodriguez eta Oihana Kortazar nagusitu ziren Iñaki Ruiz mendi lasterketan, eta, arratsaldean, Mikel Lopetegi Urra zarauztar harrijasotzaileak errekor berria ezarri zuen San Andresko harriari 45 jasoaldi emanda. Boletan, Sergio Rodriguez eibartarrak eroan zuen tiraldi mixtoto lehen saria eta Enaitz Oruesagasti auzotarrak hirugarrena. Emakumezkoen tiraldian, berriz, Oihana Laskurain nagusitu zen.

Asteleheneko bazkarian, sanandrestarrek Iñaki Garmendia *Laja* soinuujole azkoitiarra omendu zuten. Plazaz plazako ibilia lagatzera doan momentuan, urte luzetan egindako lana eskertu nahi izan zioten.

Zozketako zenbaki sarituak: 1808. (2000 ord.) eta 2564 (2148 ord.).





## Ez da kasualitatea

San Andres auzoan badira zaborgune bi, bata Txurruka eta San Andresera bidegurutzean, eta, bestea, San Andresen bertan. Bidegurutzekoan ohikoa bihurtu da edozer gauza inguruan botata ikustea: latak, apurtutako kristalak, plastikoak, eta abar.... Gutun hau idazten dihardudan egunean fotokopiagailu bat eta 6 extintore daude. Duela hilabete batzuk lantegi batetako bonbilak utzi zituzten, 100 bonbilatza inguru. Ez dago kontrolik, ez dago mugarik, ez isunik, ez ezer; ezta informaziorik ere.

Maiatzean, traste zaharrak jasotzeko zerbitzuari buruzko informazioa argitaratu zen Udalaren webgunean, baina ez zen oso argigarria. Adibidez, bota dezakegu zartagin zahar bat? Edota errotulagailu lehorrak? Autoaren bateria agortua? Extintorea?

Gero eta herri gehiagotan ikusten den garbigune mugikorra. Zergatik ez dator gurera? Zergatik ez da saiatzen Udala ganoraz azaltzen zer/non/noiz bota ahal dugun? Noiz arte jarraituko dute Udalak eta Mankomunitateak gai honi behar bezala heldu barik?

Udala eskatzen diot behar diren neurriak har ditzala zerritoki bihurtuta dauden bi gune horiek behar bezala zaindu daitezen.

Nik argi daukat; informazio eta erraztasunik ez badago, da eman nahi ez delako. Konturatu al zarete edukiontzi urdinen (paperarenak) eta horien (plastikoarenak) ahoak askoz ere txikiagoak direla errefuxarenak (txipduna) baino? Ez da kasualitatea, oso ondo diseinatutako politika diruzale baten ondorioa baizik.

**Iñigo Uribetxeberria**

## Ongi etorri jardunaldiak irailean

Zer ari da gertatzen Mediterraneoan? Azken urte luzeetako gertakariak arreta, jakin-mina, amorrua edo etsipena eragin dute gehiengoarengan. Gerrek, goseteak edo ur faltak bultzatuta, besteak beste, sorlekua utzi duten 636.367 pertsona lurreratzea eta 9.672 pertsona urperatzea (2016ko urtarriletik 2018ko uztaiera, OIMren datuen arabera) bada nahiko arrazoi. Gehitu blokeo kanpamentuetan

daudenak eta bidaiarekin egiten dutenak. Eta, gertuago etorrira, Bilboko portuan, Bidasoako mugan eta gure kaleetan gertatzen direnak.

Gehiengoak konpartitzen dugun ideia da biztanleon izenean ari diren mendebaldeko gobernu estatal eta kontinentalaren jarrera arduragabea eta lotsagarria dela. Hortaz, zer egin dezakegu herritarrok? Zertan dihardute dagoeneko?

Irailean egingo diren jardunaldietan, egoera gertutik aztertu, ikertu, salatu eta bizi izan duten herritarren berri edukiko dugu. Helburua da herritarrak eta mugimenduak zertan ari diren jakitea eta gaiari buruzko gure uste eta ideiak partekatzeak aukera proposatzea. Eta nork daki, bihur liteke dinamika iraunkorrago baten abiapuntua ere!

Horretarako, hitza hartuko dute itsas-salbamentuan, hizkuntza aniztasunaren arloan, armagintza industria salatzen, harrera planak garatzen eta dokumentalgintzan aritzen diren elkarte eta norbanakoek.

**Hautsak harrotzen**

[aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)  
[helbidera bidali gutunak](#)

## Kanoikada

Aurten, lehen aldiz, kanoikadak emango die hasiera jaiei, Udalak hala erabakita.



**Mireia Gabilondo**

Ba niri oso ondo iruditzen zait; aldaketak egotea oso ondo dago, baina beti begiratura lehenagoko gauzak mantentzen direla. Lehenagoko ohiturak... ez galtzea azkenean Sorraluzeko barren hori. Ja kaleak-eta gauza guztiak daude aldatzen, ba hasten bagara ohiturak-eta halakoak ere aldatzen, ze pena. Ono iruditzen zait, bai.



**Eider Unamuno**

Oso ondo. Aldaketak diren gauza guztiak positibo iruditzen zaizkit niri, eta gainera, herriko historiarekin eta tradizioarekin uztartzen bada hobeto, eta arrisku fisikoa gutxitzen bada ere bai, ba ya esta, festa!





**Egilea:** P.G.



**Iker  
Etxabe**

Nik uste dut betidanik bota dela etxafuegoa eta errespetatu egin beharko litzatekeela hori. Nahiago nuke etxafuegoa. Baina aldatu behar bada, eta kanoiak zarata ateratzen badu, horrekin ere konforme.



**Jose Ramon  
Casado**

Oso ondo iruditzen zait. Hobe da etxafleguena aldatzea ezer larririk gertatu aurretik. Kanoiarena seguruagoa da eta oso orijinala da gainera. Kanoiak egin diren herria da Plazentzia, eta ondo dago jaiak hazteko erabiltzea.



**Ana  
Losada**

## Despedida

Urte askoan Gilako tabernan jardun eta gero, garaia heldu da nire bizitzan beste etapa bati hasiera emateko. Bizi izan ditut momentu gogorrak, aitortza momentuak, penazko momentuak, pozezkoak, umorezkoak, dantzagarriak, amaiera bariko gauak... Gauza on asko daroat neurekin eta eskerrak eman nahi dizkiet momentu horietan nirekin izan diren pertsona guzti horiei, baina, batez ere, eskertu nahi diet momenturik zailenetan aurrera egin ahal izateko eman didaten laguntza.

Plazerra izan da.

Mila esker denori!

Zuen falta somatuko dut, bereziki, bariku gauetako taldearena. Zuek barik ez zatekeen berdina izango. Eskerrik asko eman dizkidazuen une goxoengatik eta gauak motz-motzak egitearren.



ERREPORTAJEA

# Herriko izarrak

Jaietan saio kuttunik bada, hori jaialdia da. Herri gutxitan dago 14-60 urte bitarteko herritarrak izarrak bailiran taula gainean ikusteko aukera paregabea; bada, gurean, aurtun zortzigarren urtez taularatuko dute 50 herritar ingururen artean landutako espektakulu ikusgarria.

ARGAZKIAK: **FERNAN OREGI ETA UBANE MADERA** TESTUA: **UBANE MADERA**

Hain justu, aurtengoan hildako izarrak, stars-ak, oinarri hartuta egingo dute 15 kantuz osatutako ikuskizuna.

Honako artistak izago dira ikuskizunean: Whitney Houston, Nina Simone, Amy Winehouse, Bob Marley, Prince, Dolores O'Riordan, The Doors, Blues Brothers, Bon Scott (AC/DC), Roy Orbison, Aretha Franklin, Frank Sinatra, Luis Mariano, Bimba Bose (bere tiok

lagunduta)... Domentx Uzinek eta Andoni Callesek, jaialdiko antolatzaileetako bik, dioten moduan: Azkenean gaia topatuta, beti daudela kantu politak.

## 50 bat lagun taula gainean

Artista horien kantuak taularatzten jardungo dute 14-60 urte bitarteko 30 herritar inguruk, "sorpresaren bat"



Aurtengo jaialdian parte hartu behar duten herritarrak, tartean dantzariak eta musikariak, eguaztenean, Plaza Zaharrean.

tarteko, antolatzaileek aurreratu dutenez. Musikaz arduratuko dira 10 bat musikari eta aurtan Urrats dantza-taldekoek eta Soraluzeko Txistulariek ere izango dute tartea. Gainera, Callesek aurreratu duen moduan, “aurten, aspaldiko partez, Ugaitz eta Xuban Catalan etorriko dira. Biak ibiliko dira aurkezle”.

Pare bat ordu iraungo ditu uztailaren 27an, barikuan, 23:00etan hasiko den ikuskizunak.

### **Etxeko lanak**

Jaiak baino bizpahiru hilabete lehenago hasten dira Domentx Uzin eta Andoni Calles guztia martxan jartzen. Gaia eta kantua aukeratu ondoren, ikuskizunean parte hartuko duen lagun bakoitzak “bere abestia etxean landu behar du. Domentxekin tonuak-eta hartu, baina gero ya youtubetik abestia jaitsi eta entseatu egin behar da”, dio Callesek. “Akaso kantu baten bertzio bat aukeratzen badugu, entsegu txikitxoak egiten dugu ikusteko noiz hasi eta noiz bukatu. Baina gero ya ekainaren bukaeran eta uztailaren hasieran saiatzeko gara egiten entsegu bat jaialdiaren aurretik eta gero ja beste entsegu bat,

orokorra. Horregatik bakoitzak bere etxean landu behar du abestia. Landuta ekarri behar du”, gaineratu du Uzinek. Musika moldaketak Uzinek berak eta gainontzeko musikariek egiten dituzte.

### **Musika mota ugari**

Zortzi urte daramatzate lan hori guztia egiten; jaialdiari esker, hainbat herritatik eta joan den mendeko hainbat hamarkadetatik bidaiatu dute soraluzetarrek, musika garraioz izanda: Mexikotik, Italiatik, Kubatik, Euskal Herritik, eta 60, 70 eta 80. eko hamarkadetatik.

Aurtengo jaialdirako ere topatu eta aurkitu dute aitzakia, eder askoa. Sukaldeko lana ere egin dute dagoeneko. Uzinek zera esan digu: “Astebete aurretik, denok batera entseguekin hasten garenean, parte-hartzaile guztien artean kuadrilla moduko bat osatzen dugu, nahiz eta bakoitza bere kuadrillakoa izan. Hori polita da”.

Bada, aurtengo entsegu pare bat ikusita, aurreratzeko moduan da aurtengoa ere ikusteko moduko jaialdi mundiala izango dela.



Domentx Uzin eta Andoni Calles, Musika Ekolako ikasgeletako batean.

## “Parte hartzen duenak errepikatu egiten du”

Domentx Uzinek eta Andoni Callesek zortzi urte daramatzate Jaialdia antolatzen. Biek azpimarratu dute aurten antolaketan azkeneko urtea egingo dutela, nekeak jota daudelako. Entseguetan lagun dituztenek, berriz, horri buruzko zalantza handiak dituzte.

**Jaialdiko gidariak zuek zarete, baina...**

Bai, bueno. Baina egia esan, hasierako ideia Jon Basaurik izan zuen, orain dela 8 urte. Hari bururatu zitzaion mariatxien saioa egitea abesbatzako kideekin. Eta atzetik ere, Erreka Zulon eta Galipoteko jaietan ere izan ginela aipatu beharra dago.

**Zela egiten duzue deia?**

Orain hiru urte aldatu egin genuen. Jende gehiago hasi zen laguntzen... Ze asko handitu zen. Eta demaseko lana zen.

**Aurten jende berria arrimatu zaizue? Kritika batzuk azaldu ziren “lagunek” egindako Jaialdia dela hau, parte-hartzea itxia zela...**

Beti dago jende berria. Aurten, lehen aipatutako eta argituko ez dugun sorpresaz aparte, Xuban eta

**“Taulara igotzea zer den probatzen duenean, primeran pasatzen du jendeak”**

**“Jendea jaialdia ikusteko deseatzten egoten da, zain-zain; aurten ere horrela da”**

Ugaitz izango dira. Baina, bestela, ez zaigu etorri jende asko galdezka. Niri (Andoni) etorri zitzaidan pertsona bat edo beste, baina gero aukera ematen diezunean, lotsarengatik-edo, atzera egiten dute. Hala ere, guk aukera zabalik dugu, edozein etor daiteke jaialdian parte hartzera, gogo baldin badu.... Sebas eta Roke, adibidez, orain bi urte hasi ziren gurekin eta pozik dabilta. Izan ere, taulara igotzeak engantxatu egiten du eta jendeak probatzen duenean primeran pasatzen du. Demaseko giroa dago gure artean. Etortzen

denak, normalean, errepikatu egiten du.

**Zergatik eutsi diozue hainbeste urtean jaialdiari?**

Andoni: Egiten dugulako herriarendako eta herriko jendearekin. Eta ez dugu xentimorik ere kobratzen.

Domentx: Baina esan beharra dago ere asko kostatzen zaigula. Lan handia da. Bagabiltza azken bi urteak... buf! Buruhaustek ematen ditu, entseguak, jende asko mugitu behar da, bakoitzarekin tonuak prestatu eta landu... gauza txiki asko dira.

**Horrelakoak entzunda, aurten izango da jaialdia, baina datorren urtekoa arriskuan dago?**

Andoni: Ni ez naiz egongo, hori seguru.

Domentx: Nik ere goia jo dut, eta orain egiten dugun moduan ez dut uste jaialdirik izango denik. Beste zerbait balego, akaso parte hartuko genuke, baina ez oraingo moduan. Nekatuta zaudenean aldatu egin behar izaten da, eta hori egiteko hutsunea egotea tokatzen bada, hori ere ona da. Tonto-tonto hasi zen gutzia, eta gutxika handitzen joan da. Espazio bat sortu da, eta ez da gurea.

Andoni: beste ideia batzuk behar dira, adibidez, muskaririk gabe egin daiteke jaialdia...

**Herriarrek egiten duten gauza apurretako bat da, baina...**

Domentx: Prozesu naturala hori bada, nik ez dut txarto ikusten. Hutsunea geratzen bada, akaso gogo berriak sortuko dira, eta hori ona da. Hutsunerik ez badago, berriz, zailagoa izaten da gogo berriak sortzea.

**Ze mezu jasotzen duzue herriarreatatik?**

Domentx: Jendea zain egoten da. Aurten ere jendea deseatzten dago. Alde horretatik pena ematen du. Baina norbere buruari ere begiratu behar zaio-eta... Eta bestela ere mila zeregin ditugu. Neuk txistulariekin, gaiteroekin... ere ibili behar dut...

Andoni: Baina bai, jendea deseatzten egoten da, zain-zain.

# “Disfrutatzen dugu piloia, pasada bat da”

Ioritz Aizpitartek eta Myriam Goenagak lan bikoitza dute aurtengo jaialdian: nork bere abestia interpretatzeaz aparte, korista lanak ere egiten dituzte beste hainbat kantutan.

## Denetik egiten duzue, ala?

Myriam: Lehen dantza egiten nuen, gero hasi nintzen dantzan eta abesten, eta aurten bakarrik abestu egingo dut, Amy Winehouse-n *Rehab* kantua.

Ioritz: Iaz eta aurrekoan abestu eta dantzan egin nuen; eta aurten abestu baino ez dut egingo, Whitney Houston-en *I Will Always Love You* kantua.

## Zuendako zer da Jaialdia?

I: energia txutea, bonba bat bailitzan, disfrutatzen dugu piloia. Egia esan pasada bat da.



Ioritz Aizpitarte eta Myriam Goenaga.

M: Hunkitu egiten naiz, gustatzen zait piloia, nire alde artistikoa ateratzen dut, urtean lantzen ez dudana.

## Kanpotik zer mezu jasotzen duzue?

M: Esker mordoia. Nik, gainera, gozatzen dudanarekin... horrekin geratzen naiz. Eta gure arteko giroa

demasa da; herrian ere super gustura hartzen gaituzte. Zoriondu ere egiten gaituzte.

I: Jendea zain egoten da: zer egingo duzue, nola etorriko dira... Gainera, hainbat kinta elkartzan gara, batzuetan batak bestearekin harreman handiegirik ez dugu izaten eta hori ere polita izaten da; oso positiboa izaten da.

## Besterik nahi baduzue gaineratu...

M: Gogo artistikoa edo abesteko gogoia duenarendako eta lotsatzen denarendako erronka da. Niretzat bai. Baina gustatzen zaionari eta lana egin nahi duenari (ze orduak sartu behar dira), esango nioke animatzeko! Aupa zuek!

I: Nire kasuan itxeko hiruk abesten dugu... ilobarekin abesteak ez du preziorkin.

# “Demaseko lana hartzen da prestatzen”

Abel Olaizolak Luis Mariano interpretatuko du eta musikan lagun izango ditu, Sabin Perez de Labeaga, Edurne Orbea eta Domentx Uzin.

## Noiztik parte hartzen duzue?

Sabin: ba ia denetan.

Abel: neuk ere uste dut lehenengoan izan ezik, gainerakoetan, parte hartu dudala.

Edurne: bada, sei bat urte-edo.

## Zuendako zer da jaialdia?

S: Domentxek eta horrenbeste lan hartzen dutela ikusita, laguntze aldera parte hartzen dugu. Jendeak demaseko lana hartzen du hau prestatzen, eta laguntzera gatoz.

E: herrikoa eta herriarendako da. Beraz, zergatik ez? Beste antzeko kontu batzuetan ere ibiltzen gara txistulariak.

A: Nik uste dut denok egiten dugula herriko jaialdi baten parte hartzearen, eta herritarren artean zerbait egitearen. Erronka ere bada, zeren, guk, adibidez,



Orbea, Perez de Labeaga eta Uzin.

abesbatzan abesten dugu baina gainontzekoek babestuta. Aldiz, horra irteeta, bakar-bakarrik... batzuek diote lotsarik ez dela izan behar eta zela gu lotsagabe handi samarrak garen...(barre). Hasi ziren zerbait polita egiten, eta niri irizten zait herrian norbait hasten denean zerbait egiten lagundu egin behar zaiola, kantuan ez bada tablak edo telak josten, berdin da, lagundu. Eta konturatu naiz, gainera, herrian



Abel Olaizola.

jendea zain egoten dela, eta jendea zain egoteak ematen dizkizu animoak jarraitzeko. Nekatuta bukatzen dugu, Domentxek eta Andonik errebantatuta, baina urtean-urtean jendea zain egote hori eta jendeak gero esatea: *joño herrian badaude "artistak"!* Eta gainera, gure artean giro berezia sortzen da, elkartzan garenean kuadrilla bat osatzen dugu. Etor daitezela nahi duten guztiak!

# Errugbia bertatik bertara ezagutzeko aukera



Eibar Rugby Taldeko eskolan diharduten neska-mutikoetako batzuk, tartean soraluzetarrak.

Avia Eibar Rugby Taldearen eskutik, uztailaren 28an errugbi gunea egokituko dute Plaza Zaharrean. Helburua da errugbia ezagutzera ematea soraluzetarren artean. Hori horrela, errugbian entrenatzeko gauzak ekarriko dituzte Eibartik, eta 8 urtetik aurrerako neska-mutikoak gonbidatuko dituzte kirol hori probatzera, 11:00etan hasita.

Hala azaldu du Cristina Guntinek, Eibar Rugby Taldeko gerenteak eta errugbi-eskolen koordinatzaileak: “Nahi dugu neska-mutikoek errugbia kalean probatzeko aukera izatea, ze askok uste dute errugbia bakarrik jokatu daitekeela errugbi zelaian, eta ez kalean. Plazaren zati bat egokituko dugu, eta, han, kontaktu bako errugbian jokatuko dugu. Hasiera-mailan horrela erakusten da: kontaktu barik”.

Horrekin batera, saltokia ipiniko dute, errugbiko merchandising produktuekin: kamisetak, giltzarrapoak, jantziak, errugbiaren gaineko informazioa eta beste.

## Eibarko taldearekin lotura

Avia Eibar Rugby Taldeko gerenteak kontatutakoaren arabera, soraluzetarrek lotura badute errugbiarekin: “Soraluzeko 10-15 bat neska-mutiko dabilta errugbi-

eskolan, orain dela urte eta erdi, eta multikirolean ere errugbian aritzen dira. Beraz, zubia sortu da Eibarko taldearen eta Soraluzeren artean eta hori indartu nahi dugu”.

Eibarko errugbi-eskola 8-14 urte bitarteko neska-mutikoendako da. Astean behin entrenatzen dute, barikuetan, 17:30etik 19:00etara. Eta 12-10 urtez azpikoek topaketak egiten dituzte hilabetean behin, eta partiduak ere jokatzen dituzte. 14 urtez azpikoek, berriz, lehiatu ere egiten dute. Edozelan ere Guntinek azpimarratu duenez, “jokatzeari ematen zaio lehentasuna errugbian, irabazteari eta lehiatzeari baino”.

Jakinarazi du ere jokalariek erakartzeko kanpaina egiteko asmoa dutela, bereziki, neskak: “Nesken taldea bigarren geratu da Euskal Ligan, eta Valentziako estatu mailako txapelketan ere bai. Indar handia hartzen dabil, eta errugbi taldetik berau bultzatzen dabilta, baita eskoletan ere, bereziki, errugbia mutilekin lotzeko ohitura apurtzeko”.

Bukatzeko, Guntinek eskerrak eman nahi dizkio Soraluzeri oro har, eta bertako Udalari zehazki, “Soraluzen errugbiarekiko dagoen gertutasun eta interesarengatik eta ematen duten erraztasunarengatik”.

## Pelota partiduak

Pilotak ere izango du bere tarte Soraluzeko jaietan; hain justu, afizionatu mailako partiduak jokatuko dituzte eguaztenean, uztailaren 25ean Arane kiroldegian. Pilotariak izango dira Soraluzeko Pilota Elkarteko Santamaria eta Balerdi eta Murua eta Bolinaga. Eguaztenean, 19:15ean da hitzordua.

## Futbol 7 Txapelketaren amaierakoa



lazko irabazleak, Spool Team taldea.

Bihar, zapatua, Futbol 7 txapelketaren azken faseko partiduak jokatuko dituzte Ezoziko futbol zelaian.

Goizago hasiko dira finalerdiak. 09:30ean Kosto de Marfil eta La Txaranga de Luki taldeek jokatuko dute norgehiagoka, eta 10:30ean, berriz, Maravillas eta Spool Team taldeek. Finalerdiak irabazten dituzten talde biek final handia bihar bertan, 18:30ean jokatuko dute.

Aurtengo txapelketan bederatzi taldek hartu dute parte; lehendabiziko fasea liga formatuan jokatu dute, bederatzi jardunaldi, maiatzaren 12tik uztailaren 14ra. Hori horrela, ligako lehen lau sailkatuek jokatuko dituzte finalerdiak eta finala. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du eta bigarrenak 250 eurokoa.

**ARRANO**  
taberna

**Etan eta gozatu  
etxeko pintxoak**



Etakoburuta 6  
Telefonoa 943 75 24 09

**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zure genak hartu klinika, zure puntako teknologian lan egiten dugu. Cad-Cam sistema berriketatu erabiltzen dugu.



Elizburu, 3 behe  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe@hotmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

**Belarrak** Lorandena eta belandena

Loreak, elikagai ekologiko eta osasungarriak, kosmetika eta etxeko garbitzeko produktu ekologikoak



Etxeko esamainko zerbitzua  
Enkarguak egiten dira  
Tel.: 943 75 30 31

**IZXGURRE**  
Igeltzeritza



Erakin berriak - Kalitatezko emaitza  
Erreforma - Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 640 067 200

**SUMA**  
basolanak

11/ug. 635 71 34 08

**baso garbiektak eta entresakak**  
zortzi lagunekoa taldea zure zerbitzura



Jaietaren plazarrera, bertatik bertara

**Batzoki**

eguziko erretoa  
antzinartutako  
karta eta irainak

eguziterlekak eta  
hamburguesak  
enbargo bereziak

Sinella eta  
lagun arretak  
beharrik.

Direktibak 943 75 20 50

**Etxabe**  
Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Sorraluzeko baserrietako produktuk
- Etxeko tipiki eta testaturak

Etakoburuta 5  
Telefonoa 943 75 23 75



**Txoko**

Eguneko menua,  
platea konbinatuak,  
hamburguesak,  
egitarlekokoak,  
radiak,  
piztak,  
gozarria...

Enkarguak egiten dira  
Tel. 943 75 17 09



**Hortz klinika**

27 urteko esperientzia

Javier Alamo  
Mediku Odontologikoa  
R.L. 46.001.504

Katila Guñeino  
Odontologoa  
R.L. 46.001.546

birak gabeko anestesia,  
odontologia orokorra,  
grutes trinko eta mugimena,  
odontopediatria, ortodontia,  
implanteak, estetikoa...

Enbatal 1 - Tel: 943 75 10 13



**AURREZTU ENERGIA**

Berotu ura eguzki izpiekin edo airearekin

fontaneria  
**San Andres**  
Iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



**KLB6**

Kalebarren 6  
943 67 71 20

Multzo-erakunde modukoak

Facebook icon

Opera Garaia  
**VERO MODA**

**ISOLID**  
VERO MODA



**Kontulan**  
aholkularitza  
ABOKATUAK

Errenta, altoparpenak - Administrazioa lanak  
Tratamendu burokratikoak - Lan-erleko aholkularitza  
Erregimen kontabilitate/finantziarioak - Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. esk. 20190 Sorraluze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogja - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99



**TXURRUKA**  
JATETXEA

Sukalde tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetako menu berezia  
Karta

www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81



Euskalzaletasunaren alde:







# Loyola Garmendia: “Taldearen kantu onenekin osatutako saioa izango da”



Golden Apple Quartet taldea osatzen duten abeslariak. GOLDEN APPLE QUARTET

Golden Apple Quartet laukote donostiarrak 32 urteko ibilbidean sortu dituen kanturik onenekin osatutako ikuskizuna ekarriko du Sorraluzera, eguenean, Plaza Zaharrea, 23:00etan hasita. Hala aurreratu dio Pil-pilean aldizkariari Loyola Garmendia taldekideak: **Zelako ikuskizuna eskainiko duzue?**

Betiko Golden Apple Quartet taldearen kanturik onenekin osatutako ordu bete eta hoge minutuko saioa, erritmo egokiarekin taularatuta, ikuskizunak berak erritmoa izan dezan. Oro har, jendeak gure betiko kantuak entzun nahi ditu, *Maria de la O*, *Only You...* baina badaude beste kantu batzuk, akaso ezagutzen ez dituztenak, baina oso politikak ere badirenak.

## **Zeini zuzendutakoa da?**

Edozein motatako ikusleei. Gure ikuskizuna beti izan da familia osoarendako modukoa; ikusten gaituzten guztiak oso pozik geratzen dira: nagusiak, helduak eta umeak. *Umeak ere bai?* Galdetzen dute. Eta bai. Egiten duguna ikusten geldi-geldi egoten dira.

**“Gure ikuskizuna beti izan da familia osoarendako modukoa”**

**“Musika estilo guztiak erabiltzen ditugu: flamenco, gaur egungo pop musika...”**

## **Gospel eta jazz musikak dituzue oinarri, ezta?**

Gure ibilbide musikala hasi genuen Golden Gate Quartet taldearen kantuekin; *Only You...* Baina baditugu jazz estiloko kantuak ere, Millerrenak, adibidez. Edo ahozko kantuak, *Barber Shop* musika estilokoak. Eta noski, Golden Apple Quartet taldeko kideek musika estilo guztiak erabiltzen ditugu: flamenco, gaur egungo pop musika... Batek baino gehiagok hartzen ditu ezustekoak estilo horietako kantuak entzuten dituenen. Kantu berriak dira, Goldenen estilora egokitutakoak.

**Letrei dagokienez, berriz, umoretsu beti ere. Gai politikoekin?**

Gehiago ibiltzen gara gizarte gaiekin. Adibidez, gaur egun RNE irratian, domeketan, bertako irratsaioan kolaboratzen dugu, tertuliarako kantu bat eginez astero. Gai politiko nabarmenen bat badago, hari buruzkoa da kantua, noski; baina gehienetan gizarte gaiei edo kontu kuriosoei buruzkoak egiten ditugu.

**Plaza handietan ibiltzen zarete, batez ere. Kabituko zarete Sorraluzen?**

Bai. Sorraluzen egonak gara lehenago ere. Baina, gainera, guk antzerki txikiak, handiak... denetik egiten dugu. Deitzen gaituzten lekuetara joaten gara. Ez dugu egiten eskaera berezirik, eta adibidez, irabazi asmo bako elkartea askori laguntzen diegu.

**Zer esango zenieke Sorraluzeko balizko ikusleei?**

Guk ez dugula kale egingo, denok primeran pasatuko dugu. Udan ederki pasatzen da, baina Goldenekin hobeto!



Loyola Garmendia.



# Aritz Salamanca: “Sortzen dugun magia eta dinamika ikusleei transmititzen diegu”

*FreshCool* izeneko ikuskizuna egingo du Tio Teronen Semeak taldeak, zapatuan, 13:00etan, Plaza Zaharrean. “Dantzatzeko pasioa eta umore paregabea” duen dantzari eta musikari kuadrillak 50 minutu inguruko ikuskizuna plazaratuko du. Aritz Salamancak, taldeko koreografoak eta ikuskizun zuzendariak azpimarratu duenez, “oso ikuskizun erraza da ikusteko, segituan ikusleekin konektatzen duena”. Hain zuzen ere, mota guztietako ikusleei zuzendutakoa da ikuskizuna.

**Egun baterako pentsatutako *FreshCool* saioa uste baino gehiago irauten dabil, ezta?**

Egia esan, *FreshCool* ikuskizuna oso ondo funtzionatzen ari da. Dugun onena da guk sortzen dugun magia eta dinamika transmititzen diogula ikusleei eta, normalean, bat egiten dute ikusleek eta artistek.

**Deskribatzen zaituztenek diote euskal dantzak modu ganberro samarrean egiten dituzuela zuen saioan...**

Dantzaren mundu tradizionaletik gatoz, taldekide guztiak gara euskal dantzariak eta musikariak. Partaideak euskal dantza-taldeetan aritu dira edo, gaur egun ere, badihardugu; gehien-gehienak oraindik taldeetan gaude-eta.

Eta dantza-taldeetan oso zehatzak, zorrotzak eta nolabait solemneak garen bezala, gure izateko modua ere plazaratu nahi genuen, eta hori erakutsi nahi genuen plaza batean; horregatik sortu zen *FreshCool*. Esan daiteke gure alderik ganberroena plazaratzen dugula *FreshCool* ikuskizunean.

**Euskal dantzen ikuskizunen bueltan umore puntua falta dela uste duzue?**

Baditugu gauza umoretsuak euskal dantza tradizionaletan, baina, batez



Tio Teronen Semeak Arrasaten egindako ikuskizunean. GOIENA



Aritz Salamanca. DANTZAN.EUS

**“Ondo pasatzeko ikuskizuna nahi badute, 'FreshCool' da hori”**

**“Gure alderik ganberroena azaltzen da 'FreshCool' saioan”**

**“Dantzarekin zerikusia duten saioetan umorearen beharra zegoen”**

ere, inauterietan oinarrituta egoten dira halakoak. Egia esan, erromeriak ere ez dira serioak baina oso kodifikatuta daude, zelanbait esatearren. Eta ikusten genuen dantzarekin zerikusia duten ikuskizunetan umorearen beharra bazegoela, proposamen gutxi zeudela. Badirudi ate hori zabaldu dugula apur bat eta orain badabilta irteten beste proiektu batzuk. Musikak, antzerkiak... umorea ere badute barneratuta; dantza zen umore puntua azaleratzea falta zitzaiona. Seguru asko lotzen ditugulako euskal dantzak gauza solemneekin, eta dantza oso anitza da, izan daiteke solemnea, edo ez.

**Zer esango zenieke Soraluzeko balizko ikusleei?**

Animatzeko. Muskuluak olioztatuta ekartzeko eta, batez ere, ondo pasatzeko gogoarekin etor daitezela. Gure ikuskizuna kontsumitzeko oso erraza da, eta ondo pasatzeko ikuskizuna nahi badute, *FreshCool* da hori; pasibo edo aktibo etor daitezke, baina ondo pasatzea oso erraza da *FreshCool*ekin.

# “Plaentxin jo genuen lehen aldia ez dugu inoiz ahaztuko!”



Galtxagorrien txoznagunean, iaz.

Uztailaren 25ean, Fan&Go taldeak girotuko du erromeria txoznagunean. Talde zarauztarraren berri eman digute Garazi Intxauspe, Mattin Ostolaza eta Araitx Olaizola taldekideek.

**Noiz osatu zenuten taldea?**

2008an. Trikiti bikotea ginen eta talde izatera pasatu nahi genuen.

**Zelako taldea da Fan&Go?**

Badira erromeri taldeak erreperitorio tradizionala lantzen dutenak eta beste batzuk gazteagoengana zuzentzen direnak, kañeroagoak. Gu ahalegintzen gara gazteengana zuzentzen.

**Urteotan asko aldatu dira gustuak?**

Aldatu baino, zabaldu egin dira gehiago. Badira kanta batzuk desfasatuta gelditu direnak, eta kontrakoa ere bai; Goazen efektua dela-eta berriz boladan daudenak.

**Poztekoa da, ezta?**

Bai, baina badu beste alde bat ere. Ondo dago kantuak ezagutaraztea baina garrantzitsua da jakitea zeinenak diren eta zein garaitakoak, eta hori ez da transmititzen.

**Zein dira gehien funtzionatzen duten kantuak?**

Untzaren Aldapan gora egon zen oso boladan baina segituan erre zen. Untzaren Inondik inora kantua asko jotzen dugu. Hori bai, arrakasta gehien duena polka da.

## “Plaentxiko zaleekin lotura berezia sortu da”

Gure termometroa da erromeria zela doan neurtzeko.

**Triki taldeekiko zaletasuna piztu egin da berriz, ezta?**

Bai eta alde batera poztekoa da, baina, bestera, komeni da neurria hartzea. Orain hamabost urtetik hona, giroa bigundu egin da txoznaguneetan. Guretzat ona da, baina oreka bat behar da musika estilo guztiek lekua izan dezaten.

**Zenbat saio eskaintzen dituzue urtean?**

Berrogeita bost inguru. Gehiena herri txikietan jotzen dugu, gaztetxeetan... Noizbehinka plaza handiagoetan ere bai: Donostian, Tolosan...

**Soraluzen eskaini dituzue kontzertu mordoxxa bat.**

Bai, lehenengo aldian Gaztetxean jo genuen, gero zubian, San Andresen, Ezozin... Gaztetxean jo genuen lehenengo aldia berezia izan zen, inoiz ahaztuko ez dugun kontzertua. Trasteak batzuko indarrak barik amaitu genuen.

Plaentxiko zaleekin lotura berezia sortu da eta jarraitzen gaituzte beste herri batzuetara ere.

## Domeka gauean, erromeria

Jaien osteko egunean, domekan, erromeria egingo da Gaztetxean Mugi panderoa talde eibartarrarekin. Bolia tabernak eta Galtxagorriek elkarrekin antolatuko duten ekimena da, “aurreko egunetan gozaterik izan ez duten tabernarietzako pentsatua, baina edozeinendako irekia”. Ideia jai batzordean bileran sortu zen, Bolia tabernak tabernarien eguna antolatzeko egindako proposamenaren harira.

## Musika eskaintza zabala txoznagunean



A tuti plen taldea Azkoitian.

Askotariko musika estiloak entzun ahalko dira zubiko txoznagunean:

26, eguena: Pelax & Telmo Trenor (Gitarrista eta DJ-a), A Tuti Plen (Rock-a, Soraluze) eta Bastardix (Folk rock-a, Iruñea).

27, barikua: Arratsaldean RkeR elektrotzaranga eta gauean Against You (Streetpunk, Iruñea) eta Liher (Rock, Donostia).

28, zapatua: Balarrasa (Hard rock-a, Durango), Nafarroa 1512 (Streetpunk, eta Nomadak (Rock-a eta elektronika, Bergara).

# Munduko gorenen artean dagoen Aitor Ronda *Soraluze Open Air Gune Musiken*



Aitor Ronda musikari kataluniarrak 20 urte daramatza musika elektronikoaren munduan. AITOR RONDA

18:30ean frontoiko karpa zabaldu eta 21:00etan abiaraziko dute uztailearen 27an, barikua, *Soraluze Open Air Gune Musik*. Indartsu dator zazpigarren edizioa izango duen teknoaren zaleendako eskaintza, besteak beste, Aitor Ronda kataluniarra bertan izango delako.

Mikel Apariciok, *Soraluze Open Air Gune Musiken* antolatzaileetako batek, azpimarratu duenez, “Pasa den hilabetean *Blue Girl Ep* izeneko azken lana argitaratu zuen Aitor Rodak, bi asteen *beatport* salmenta plataforman munduko topeko lehengo ehunen artean sartuta zegoen. Bere aurreko lana munduko toparen lehenengo postuan egon zen denbora luzean. Beraz, musikalki, Aitor Ronda maila oso altuan dago gaur egun, eta Soraluzera ekartzea aukera paregabea da guretzat. Aitor Rondak bizitza musikal luzea eta ikaragarria du. Gaur egun, tekno estiloen, produkzio atalean, mundu mailan onenetakoa da. Zigilu diskografiko entzutetsuenekin fitxatu du eta gero eta maila handiagoa lortuz ari da zentzu guztietan. 20 urte daramatza elektronikaren munduan, eta hainbat zigilu sortu ditu: *Ip, front records, Drakos records...*”

Rondarekin batera, *Soraluze Open Air Gune Musiken* karteldegia osatzen honako musikariak ere izango dira: *Urok a.k.a. Violent Sumbsoncioust* (Soraluze); *Apa a.k.a. Dinnamickal* (Soraluze); *Daniel Rivas & Erkorek a.k.a Soled* (Arrasate); *Andoni Martin eta Oier Aguinaga* (Eibar); *Purple boyz* (Deba); *J&F* (Usurbil) eta *Aritz Ramirez* (antolatzailea).

## Master class-a

Guztien artean, 7 bat orduko ikuskizuna eskainiko dute. Eta bestelako edizioetan moduan, oraingoan ere, aurreikuspena da ehunka zale erakartzea, baita Euskal




*Urok a.k.a. Violent Sumbsoncioust. M.A.*

Herritik kanpokoak ere: “Iaz 600 lagun erakarri genituen; orain dela bi urte gure ediziorik jendetsuena izan zen, 1.000 bat pertsona etorri ziren (...) Hainbat lekutatik etorri ohi dira, Kantabriatik, Errioxatik, Burgostik, Donostiatik, Bilbotik, Gasteiztik, Iruñetik eta inguruko herrietatik”, dio Apariciok.

DJ saioez aparte, baina, aurten berritasun bat ere izango du *Soraluze Open Air Gune Musikek*: *Ableton Live 10* programari buruzko master-classa egingo dute, Andrew Car eta Beatoren eskutik. Apariciok zera esplikatzen digu: “*Ableton Live 10* musika munduko hainbat programetako bat da. Estilo askotako musika egin daiteke hura baliatuta, ez musika elektronikoa bakarrik. Gaur egun, bakarlari askok erabiltzen dute euren doinuak eta erritmoak egiteko. Gure atalean, musika elektronikoa, erabili da”.

Master class-a karpa zabaltzeaz bat egingo dute, 18:30ean. Doan izango da, eta interesa duen edozein bertara daiteke, Apariciok esan digunez, “denoi zuzenduta dago orokorrean, zeren eta elektronikara aplikaturiko teknikak edo produkzio erregelak berdinak dira musika mota guztietan. Berdin du teknoa izatea edo jazz musika izatea”.



*Apa a.k.a. Dinnamickal. MIKEL APARICIO*



Galtxagorrien txarangako kideak, 2004an.

# 15 urteko ibilbidea

Aurten, Galtxagorrien mugimenduak hamabost urte beteko ditu. Orduan sortutako txoznaguneak, txarangak eta Marras pertsonaiak leku finkoa dute jaietako egitarauan

ARGAZKIAK ETA TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

“Zerbaiten falta” somatzen zuten jaietako egitarauan eta hainbat adinetako gazteek hutsune hori betetzeko asmoz sortu zuten 2004an Galtxagorri jai-batzordea. Tartean ziren Pil-pileanekoak, Euskal Herrian Euskarazekoak eta Gaztetxeakoak.

## Marras

Behar zen jaietako pertsonaia bat eta aukeratu zuten karakola. Ikastolaren ikur izan zenetik euskaltzaletasunaren eta gizarte mugimenduen sinbolo bihurtua zegoen herrian, eta, gainera, ez zen ez maskulinoa ez femeninoa. Ba ei zegoen Legazpin Miel

izeneko tipo bat, halakoak eraikitzen zituen. Baita eraiki ere, galanta.

## Galtxagorriak txaranga

Jaietako pertsonaiak lagunak behar zituen, asko eta bixiak. Eta zer hobe Galtxagorri bihurriak baino? Buzo gorriak jantzi eta aurrera! Gainera, bazegoen herrian musikari gazte mordoak zituen txaranga, musika eskolarena. Handik aurrera, Galtxagorri txaranga bihurtu zen eta gehienetan Marras lagun hartuta ibili zen. Ondorengo urteetan alaituko zituen herriko kaleak, eta baita Osintxuko plaza ere, urtean behin.



Galtxagorrien txaranga iazko jaietan.



Frontoiko txoznagunea prestatzen, 2004an.



Marras traktorean hartuta, Osintxun.



Galtxagorrien taldeko kide batzuk.

**“Txaranga oso ondo dator musika-eskolako ikasleek kalean jo dezaten, parranda giroan. Etorkizunean gazteek hartu beharko dute ardura”**

DOMENTX UZIN, TXARANGAKO KIDEA

**“Galtxagorriek aportatzen dute gazteendako egitaraua, Udalak eskaintzen ez duena. Etorkizunean jendea beharko da ardurak hartzeko.”**

MARKEL BARRUTIA, GALTXAGORRIEN MUGIMENDUKO KIDEA

Osintxuarrak etortzen baziren euren jaien hasiera iragartzera, zela ez ziren ba joango plazentziatarrak eurenen berri ematera? Urtero urtero traktore eta guzti, hutsik egin gabe.

Pertsonaiarendako kantua behar zen, sinplea eta errepikakorra, erraz ikasteko modukoa: “Marras Galipoteko, Marras Galipoteko, Marras Galipoteko, Marras eta gu!”.

### Txoznagunea

Jaigune bat ere behar zen, gazteek kudeatua eta gazteendako, eta hautatu zen Frontoia. Aparte zegoen, baina ez aparteei, eta nahikoa espazio eskaintzen zuen, gainera. Udalak tablaia jarri zuen eta Galtxagorriek txosnak; baten faltan, bi. Denetariko pankartak ere bai, tartean politiko-kritikoak, orduko udal gobernuari gustatu ez zitzaizkionak. Gaudituz zen krisia nolabait, eta hurrengo urtean, argia piztu zitzaion norbaiti eta txoznagunea bajatu zen Zubi Nagusira, herriaren erdi-erdira. Ordura arte, inori ez zitzaion okurritu zubia jaigune izan zitekeenik... Gero etorri ziren gazteen bazkaria eta abarrak, klasiko edo tradizio bihurtu direnak. Orain txoznako txandak arratsalde batean betetzen ei dituzte whatsapp-aren bitartez, baina non dago aulki jokoa?

### Etorkizuna marrazteko

Hamabost urteko ibilbidearen ostean, ukazina da Galtxagorriek ekarpen garrantzitsua egin dietela herriko jaiari. Lehengoan eta oraingoan jardunari esker, herriko jaiak aberatsagoak dira eta herrikoiaioagoak. Oinarri batzuk jarrita daude, baina etorkizuneko bidea datozenek edo dagoeneko daudenek marraztu beharko dute.

ZORION AGURRAK



**Irati Aguado**  
Uztailaren 15ean, 7 urte. Zorionak maitxia! Etxekoan partez. Segi horrela.



**Anas Ouhammi**  
Uztailaren 18an, 2 urte. Zorionak! Etxekoan partez!




**Oier Garcia**  
Uztailaren 4an, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako! Guraso eta yayaren partez.



**Mikele Oregi**  
Abuztuaren 1ean, 3urte. Askok maitte zaitugu! Familiaren partez.



**Javi, Izaro eta Markel**  
Zorionak! Muxu handi bat etxeko guztion partetik. Askok maitte zaituztegu!



**Unai Sanchez Gonzalez**  
Uztailaren 4an, 3 urte! Zorionak maitia! Muxu handi bat zure familiaren partetik!

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...

**605 706 086**

(deitu edo bidali whatsapp-a)

**aldizkaria@pilpilean.com**

OHARRA



**Banatazaileak**

Uztailean hasi eta datorren maiatzera bitartean, banatazaile talde berriak banatuko du Pil-pilean aldizkaria eta Udalaren agenda. Eskaeraren bat egin nahi izanez gero, idatzi edo deitu Pil-pileanera. Erreserbako aleak Iratxo goxodendan lagako dituzte.

**Jaietako egitaraua mugikorrean**

Deskargatu mugikorrera jaietako egitarauaren bertsio laburra. Orrialdeko bateko PDF-a [Plaentxia.eus-en](http://Plaentxia.eus-en).

ESKELAK

VII. URTEURRENA

**Lurdes Ariznabarreta Eguren**



2011ko uztailaren 23an hil zen.

*Ezozin gora Arritxa,  
behixak larrian dabilta,  
tximiniaren ahotik doia  
erretako haritza.*

*Sustar sakonen emaitza,  
emon deskuzu bizitza,  
hamar adarren baitan biziko  
da orain zuhaitza!*

Sendia

# KUKUMIXOREN X. URTEURRENEKO TONBOLA



URDAIAZPIKOAK, ARDO ONA, AFARIAK,  
PUNTUEUS SASKIAK, DESKONTU  
TXARTELAK HERRIKO DENDETARAKO...

UZTAILAK 25, EGUAZTENA  
18:00ETATIK AURRERA, PLAZA BARRIXAN

600  
OPARITIK  
GORA



**Fanny Mertzeria**  
Arropak konpontzen ditugu  
Santa Ana 22, beheko - 688 81 53-92

**Carpinteria MANU Aroztegia**  
Atalak  
Iturriak  
Perforak  
Sukaldeak  
Tokiak

Manuel Cifuentes  
Estazioa 8, barrera - Mug. 636 05 81 25

**TXURITXU GOZOTEGIA**  
Asteleroetik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30  
Laruntzala: 08:30-13:30  
Igandak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia,  
perrea, pastelak,  
borbotak...  
Itxura eramaneko  
zerbitzua  
Tel. 943 75 24 43

**Almar**  
Bespaindegia  
Estetika  
Soluzioak

Gabriel 4, beheko - Tel. 943 79 23 23 - 682 51 24 04

**KM design**  
Kira Muntalarak  
943 76 00 85

■ Diseinueta Fabrikazio lanak  
Sukaldeak  
Horma-arnalduak  
Logelak  
Zonak  
Atalak...

■ Arotzeria lanak oro har  
■ Instalazioak

km.muntalarak@ymhoo.es  
www.kmdesign.es  
Pol. Amilaga 5  
BERGARA

**TATTOO ESTUDIO ARTISTIKOA**  
**INBIRU**

Baratze 19, KOBALDE (Gipuzkoa) - Tel. 947725403 - www.inbiruartistikoa.com

**ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA**

Arantza  
dekoratiboa  
Industria

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30



**SORALUCE**



Fresatze, mandrinatze  
eta torneatze teknologietan  
**estandar berriak ezartzen**

*SORALUCEk jai zoriontsuak opa dizkizue!*

**DANOBATGROUP**

**SORALUCE**  
Osintxu auzoa  
20570 BERGARA

Tel.: +34 943 76 90 76  
soraluce@soraluce.com  
[www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)

